

183. araua

ADIERAZPEN IZENDATZAILEEN DEKLINABIDEA

AURKIBIDEA

- 1 Izen berezien baliokideak: adierazpen izendatzaileak
- 2 Adierazpen izendatzaileak izen arrunten baliokide: birkategorizazioak
- 3 Adierazpen izendatzaileak idatziz nola deklinatu behar diren zehazteko irizpide orokorra
 - 3.1 Kontsonantez bukatuak
 - 3.2 Bokalez bukatuak
 - 3.2.1 *e, i, o* edo *u* bokalez bukatuak
 - 3.2.2 “*a*” artikuluz bukatuak
 - 3.2.3 “*a*” bokalaz bukatuak
- 4 Adierazpen izendatzaileen berezitasuna: izena eta izana beti ez datoz bat
 - 4.1 Ez da beti erraza ebazten izana eta izena bat datozen: interpretaziorako tartea
- 5 Pluraleko adierazpen izendatzaileen deklinabidea
- 6 Izen-sintagma ez diren adierazpen izendatzaileen deklinabidea
- 7 Arauaren laburpena

1 Izen berezien baliokideak: adierazpen izendatzaileak

Izen berezien eremuan, berezko izen bereziez gainera, badira pertsona-izen edo leku-izen ez diren **adierazpen izendatzaileak** ere: lexiko arrunteko hitzez (Hezkuntza Saila, Udako Euskal Unibertsitatea, Euskarabidea, Europar Batasuna) edo lexiko arrunteko hitzen eta izen berezien konbinazio finko batez osatuta daude (Elhuyar Fundazioa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Frantziako Errepublika), haien erreferentea bakarra da (berezko izen berezietan bezala), eta identifikatze- eta bereizte-funtzio nabarmena dute; hots, izen berezien antzeko funtzioa dute. Halakoak dira era guztietako enpresa, talde eta erakunde, merkataritza-establezimendu, marka, gertaera, eta era guztietako artelan eta bestelako sorkarien izenak (*Haizearen Orrazia*, Eusko Jaurlaritza, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Bigarren Mundu Gerra, Coca Cola, Google, Euskaltel...)¹.

Adierazpen izendatzaileetan, esanahi formalak ez du nahitaez bat etorri behar izendatzen duen erreferentearen izaerarekin. Adibidez, *Argiaren* erreferentea ez da argia, aldizkari bat baizik, Euskadi Gaztea ez da lurralde “gazte” bat, irrati bat baizik, edo Amnistia Internazionala ez da amnistia-mota bat, erakunde bat baizik.

Era horretako adierazpen izendatzaileak nola deklinatu behar diren ez da berariaz zehaztu orain arteko arauetan. Dena dela, EGLU I eta *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna* liburuetan plazaratu da gaia, eta irtenbidea ere azaldu da gaingiroki². Halakoak nola deklinatu azaldu baino lehen, komeni da zehaztea nolakoa izan daitekeen adierazpen izendatzaileen osaera.

Hitz bakarrekoak zein hitz bat baino gehiagokoak izan daitezke:

- Hitz bakarrekoak, hala nola Euskaltzaindia, *Argia*, Eroski, *Berria*, Iberdrola, Elhuyar, Osasuna, Euskaltel, *Obabakoak* (eleberria), *Ezkongaietan* (kanta), Danobat, Irizar...

- Hitz bat baino gehiagokoak (denak izen arruntak izan daitezke edo izen arrunt eta berezien konbinazio bat), hala nola Mondragon Unibertsitatea, Europar Batasuna, *Udagau bateko ametsa* (antzezlan baten izenburua) Leku Ona (jatetxe baten izena), Euskal Museoa, Eusko Ikaskuntza, Fagor Ederlan...

Bestalde, pluralekoak ere izan daitezke: Mugarik Gabeko Medikuak, Ikasle Abertzaleak, Kilometroak, *Obabakoak*, Langile Komisioak, Plazandreak...

¹ Erakunde eta bestelakoen siglak ere (OEH, *Orotariko Euskal Hiztegia*; AEB, Ameriketako Estatu Batuak; EAJ, Euzko Alderdi Jeltzalea; EEP, Euskararen Erakunde Publikoa; CAF, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles...) adierazpen izendatzaileak dira. Dena dela, siglen deklinabidea ez da arau honen berariazko aztergaia.

² EGLU I liburuan, 1.2.1 puntuan (Izen arruntak eta izen bereziak); *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna* liburuan, 2.1. puntuan (Izenen sailkapena), 2.1.3.1. azpipuntuan.

Egiturari dagokionez, izen-sintagmak dira askotan, baina perpaus osoak edo perpaus-zatiak ere izan daitezke: Gure Esku Dago (herri-mugimendu bat), *Gorde nazazu lurpean* (eleberria), Ahal Dugu (alderdi politiko bat), *Gara* (egunkari bat), Nafarroa Oinez (Nafarroako ikastolen jai bat).

Eta erdarazkoak ere izan daitezke, euskaratzen ez direnak: *Star Trek* (telesail bat), Greenpeace (erakunde bat), *Enola Gay* (hegazkin bat), Coca Cola (edari freskagarri bat), Rolls-Royce (automobil-marka bat, besteak beste)...

2 Adierazpen izendatzaileak izen arrunten baliokide: birkategorizazioak

Aurreko atalean adierazpen izendatzaileak izen berezien baliokide direla adierazi bada ere, adierazi beharrekoa da, halaber, izen arrunten baliokide ere izan daitezkeela testuinguru jakin batzuetan, izen bereziekin gertatzen den bezala. Alegia, kategoria-aldaketa jasan dezakete. Batzuetan, izen bereziak edo adierazpen izendatzaileak, bere izaera galdu gabe, morfosintaktikoki izen arrunt gisa jokatzen du. Adibidez, marka erabiltzen denean marka horren produktu bat izendatzeko.

Enpresa edo marka bat eta marka horretako produktu baten unitate jakin bat edo produktu-unitate generiko bat, hizkuntzaren ikuspegitik, ez dira gauza bera. Esate baterako, Renault edo Nissan automobil-konpainiak dira, markak dira, baina izen horiek erabiltzen ditugunean, batzuetan, ez dugu marka adierazten, baizik eta marka horretako automobil jakin bat edo marka horretako automobil generiko bat. Adibidez:

Renaultek inoiz baino irabazi handiagoak izan ditu [Enpresaren izena edo marka].

Renaulta konpontzera eraman dut [Marka horretako automobil jakin bat].

Ez dut **Nissanik** erosiko. [Marka horretako automobil generiko bat].

Halakoetan, izen arrunten baliokideak dira; hau da, plurala onartzen dute (**Nissanak** merkeago daude aurten iaz baino), izenondoak eta determinatzaileak eta abar onartzen dituzte (**Nissan** hori Mirenena da; gehien gustatzen zaidana **Nissan** gorria da; Anderri **Nissan** guztiak gustatzen zaizkio). Baina ez dute galtzen hasierako letra larria, eta ez dira lexiko arruntera igarotzen; hau da, ez dira hiztegietako sarrera bihurtzen, ez dira lexikalizatzen jeep, klaxon, aspirina eta jatorriz izen berezi ziren batzuk lexikalizatu diren bezala.

Beraz, kasu horretan, deklinatze-ondorioetarako, izen arruntak dira: izen arrunt gisa deklinatzen dira. Adibidez:

Nire **Fiatak** 150.000 kilometro baino gehiago ditu.

Sebastian Vettelen aurtengo **Ferraria** iazkoa baino azkarragoa da.

Birkategorizazioen fenomenoak orokorra da, eta ez dagokio adierazpen izendatzaileei bakarrik³. Kasu berezi bat da; beraz, hurrengo puntuetan lantzen den izen berezien baliokide diren adierazpen izendatzaileen deklinabidea ez dagokio kasu berezi horri.

3 Adierazpen izendatzaileak idatziz⁴ nola deklinatu behar diren zehazteko irizpide orokorra

Euskararen deklinabidean, orain artean, bi sail nagusi daude bereizi izan dira: izen bereziak (leku-izenak eta pertsona-izenak) eta izen arruntak. Arau honek hirugarren sail bat zabaltzen du, sail osagarri bat: izen berezien baliokide diren baina leku-izen edo pertsona-izen ez diren adierazpen izendatzaileak.

3.1 Kontsonantez bukatuak (Nafarroa Oinez, Star Trek, Interpol, Fagor)⁵

Kontsonantez bukatutako adierazpen izendatzaileen deklinabidea⁶

1) Absolutiboa	Nafarroa Oinez; Star Trek; Interpol; Fagor
2) Partitiboa	Nafarroa Oinezik; Star Trekik; Interpolik; Fagorrik

³ Metonimia bidezko birkategorizazioak leku-izenetan eta pertsona-izenetan ere gertatzen dira. Adibidez:

Iaz lapurtu zuten **Picasso** Ataungo baserri batean aurkitu dute.

Atxagatik hasi eta **Zubizarretaraino**, oso gauza interesgarriak idazten dira haur eta gazteentzat euskaraz.

Lehenengo **Donostia-Behobietan** jende gutxik parte hartzen zuen.

⁴ Adierazpen izendatzailea erdal hitz bat –edo hitza-sail bat– bada (edo, adierazpen izendatzaileak hitz batez baino gehiagoz osatuta egonik, azken hitza erdal hitz bat bada) eta hitz horren ahoskera eta idazkera bat ez badatuz, hala nola *Greenpeace*, ahoz nola deklinatu jakiteko, ikus irizpidea *Erdal hitzen deklinabidea* arauan (184. araua).

⁵ Oro har, kontsonantez bukatutako leku-izenak bezala deklinatzen dira, baina bada desberdintasun bat. Leku-izenak deklinatzean, aukerakoa da *e* epentetikoa erabiltzea leku-genitiboan, adlatiboetan, ablatiboan eta motibatiboan. Adibidez, **Eibarko** zein **Eibarreko**; Nafarroa Oinez edo Fagor adibideen kasuan, ordea, **Nafarroa Oinezeko** eta **Fagorreko** dagokie, eta ez ***Nafarroa Oinezko** eta ***Fagorko**.

Era berean, aukerakoa da leku-izenetan, bai leku-genitiboan eta bai ablatiboan ere, *-(e)ko*, *-(e)tik* egin beharreak *-go*, *-dik* egitea leku-izena *n* zein *l* letraz amaitzen denean: **Irungo**, **Irundik** zein **Iruneko**, **Irunetik**; **Usurbilgo**, **Usurbildik** zein **Usurbileko**, **Usurbiletik**. Interpol edo Ederlan adibideen kasuan, ordea, **Interpoleko**, **Interpoletik** eta **Ederlaneko**, **Ederlanetik** dira aukera bakarrak, eta ez ***Interpolgo**, ***Interpoldik** eta ***Ederlango**, ***Ederlandik**. Hau da, *e* epentetikoa sistematikoa da, izen arruntetan bezala (autobuseko eta ez *autobusko; haraneko eta ez *harango). Gerta daiteke hitz bera testuinguru batean leku-izena izatea eta beste batean erakunde-izena izatea. Orduan, desberdin deklinatuko lirarteke kasu horietan. Adibidez:

Eibarko herritarrak (Eibarreko herritarrak ere bai), baina **Eibarreko jokalaria** (Eibar Kirol Elkarte aipatzeko forma laburra da Eibar).

⁶ Terminologiari dagokionez, hala *deklinabide* hitza bera nola kasuen izenak (*absolutiboa*, *hurbiltze-adlatiboa*...) Euskaltzaindiaren EGLU liburuetan eta *Euskal gramatika laburra: Perpaus bakuna* liburuan ageri diren berak dira.

3) Ergatiboa	Nafarroa Oinezek; Star Trekek; Interpolek; Fagorrek
4) Datiboa	Nafarroa Oinezi; Star Treki; Interpoli; Fagorri
5) Inesiboa	Nafarroa Oinezen; Star Treken; Interpolen; Fagorren
6) Leku-genitiboa	Nafarroa Oinezeko; Star Trekeko; Interpoleko; Fagorreko
7) Adlatibo soila	Nafarroa Oinezera(t); Star Trekera(t); Interpolera(t); Fagorrera(t)
8) Hurbiltze-adlatiboa	Nafarroa Oinezertantz; Star Trekerantz; Interpolerantz; Fagorrerantz
9) Muga-adlatiboa	Nafarroa Oinezeraino; Star Trekeraino; Interpoleraino; Fagorreraino
10) Ablatiboa	Nafarroa Oinezetik; Star Treketik; Interpoletik; Fagorretik
11) Genitiboa	Nafarroa Oinezen; Star Treken; Interpolen; Fagorren
12) Soziatiboa	Nafarroa Oinezekin; Star Trekekin; Interpolekin; Fagorrekin
13) Instrumentala	Nafarroa Oinezez; Star Trekez; Interpolez; Fagorrez
14) Motibatiboa	Nafarroa Oinez(en)gatik; Star Trek(en)gatik; Interpol(en)gatik; Fagor(ren)gatik
15) Destinatiboa:	Nafarroa Oinezentzat; Star Trekentzat; Interpolentzat; Fagorrentzat
- Genitiboaren gainean eraikia	Nafarroa Oinezendako; Star Trekendako; Interpolendako; Fagorrendako
- Inesiboaren gainean eraikia	Nafarroa Oinezeko; Star Trekeko; Interpoleko; Fagorreko
- Adlatiboaren gainean eraikia	Nafarroa Oinezera(t); Star Trekera(t); Interpolera(t); Fagorrera(t)
- Prolatiboa	Nafarroa Oineztzat; Star Trektzat; Interpoltzat; Fagortzat Nafarroa Oineztako; Star Trektako; Interpoltako; Fagortako

3.2 Bokalez bukatuak

Leku-izenetan bezala, hiru azpisailetan banatzen dira.

3.2.1 e, i, o edo u bokalaz bukatuak (Urzante, Eroski, Cikautxo | Ahal Dugu)⁷

e, i, o edo u bokalaz bukatutako adierazpen izendatzaileen deklinabidea

1) Absolutiboa	Urzante; Eroski; Cikautxo; Ahal Dugu
2) Partitiboa	Urzanterik; Eroskirik; Cikautxorik; Ahal Dugurik
3) Ergatiboa	Urzantek; Eroskik; Cikautxok; Ahal Duguk
4) Datiboa	Urzanteri; Eroskiri; Cikautxori; Ahal Duguri
5) Inesiboa	Urzanten; Eroskin; Cikautxon; Ahal Dugun
6) Leku-genitiboa	Urzanteko; Eroskiko; Cikautxoko; Ahal Duguko
7) Adlatibo soila	Urzantera(t); Eroskira(t); Cikautxora(t); Ahal Dugura(t)
8) Hurbiltze-adlatiboa	Urzanterantz; Eroskirantz; Cikautxorantz; Ahal Dugurantz
9) Muga-adlatiboa	Urzanteraino; Eroskiraino; Cikautxoraino; Ahal Duguraino
10) Ablatiboa	Urzantetik; Eroskitik; Cikautxotik; Ahal Dugutik

⁷ e, i, o edo u bokalaz bukatutako leku-izenak bezala deklinatzen dira. Hau da, Bilbo deklinatzen den bezala.

11) Genitiboa	Urzanteren; Eroskiren; Cikautxoren; Ahal Duguren
12) Soziatiboa	Urzanterekin; Eroskirekin; Cikautxorekin; Ahal Dugurekin
13) Instrumentala	Urzantez; Eroskiz; Cikautxoz; Ahal Duguz
14) Motibatiboa	Urzante(ren)gatik; Eroski (ren)gatik; Cikautxo(ren)gatik; Ahal Dugu(ren)gatik
15) Destinatiboa:	Urzanterentzat; Eroskirentzat; Cikautxorentzat; Ahal Dugurentzat
- Genitiboaren gainean eraikia	Urzanterendako; Eroskirendako; Cikautxorendako; Ahal Dugurendako
- Inesiboaren gainean eraikia	Urzanteko; Eroskiko; Cikautxoko; Ahal Duguko
- Adlatiboaren gainean eraikia	Urzanterako; Eroskirako; Cikautxorako; Ahal Dugurako
- Prolatiboa	Urzantetzat; Eroskitzat; Cikautxotzat; Ahal Dugutzat Urzantetako; Eroskitako; Cikautxotako; Ahal Dugutako

3.2.2 “a” artikuluz bukatuak (Hezkuntza Saila; Nafarroako Aldizkari Ofiziala; Euskal Konfederazioa; Euskaltzaindia)

Adierazpen izendatzailea izen-sintagma absolutibo bat denean eta haren azken hitza izen arrunt bat (Euskal **Konfederazioa**) edo izenondo bat (Hiztegi **Batua**) denean, izen-sintagmak determinatzailea hartzen du, artikulua. Era horretako adierazpen izendatzaileak izen-sintagma mugatu guztiak bezala deklinatzen dira. Hau da, bi aukera daude:

a) Artikulua kenduta, kontsonantea izatea amaieran: *haran* hitza bezala deklinatzen dira (hala deklinatzen dira, era berean, artikulua kenduta kontsonantez amaitzen diren leku-izen artikuludunak ere, hala nola Abaurregaina, Urizaharra edo Pettarra). Adibidez:

Hezkuntza Saila (artikulturik gabe: Hezkuntza Sail).

Nafarroako Aldizkari Ofiziala (artikulturik gabe: Nafarroako Aldizkari Ofizial).

Artikulua kenduta kontsonantez bukatzen diren adierazpen izendatzaileen deklinabidea

1) Absolutiboa	Hezkuntza Saila; Nafarroako Aldizkari Ofiziala
2) Partitiboa	Hezkuntza Sailik; Nafarroako Aldizkari Ofizialik
3) Ergatiboa	Hezkuntza Sailak; Nafarroako Aldizkari Ofizialak
4) Datiboa	Hezkuntza Sailari; Nafarroako Aldizkari Ofizialari
5) Inesiboa	Hezkuntza Sailean; Nafarroako Aldizkari Ofizialean
6) Leku-genitiboa	Hezkuntza Saileko; Nafarroako Aldizkari Ofizialeko
7) Adlatibo soila	Hezkuntza Sailera; Nafarroako Aldizkari Ofizialera
8) Hurbiltze-adlatiboa	Hezkuntza Sailerantz; Nafarroako Aldizkari Ofizialerantz
9) Muga-adlatiboa	Hezkuntza Saileraino; Nafarroako Aldizkari Ofizialeraino
10) Ablatiboa	Hezkuntza Saisetik; Nafarroako Aldizkari Ofizialetik
11) Genitiboa	Hezkuntza Sailaren; Nafarroako Aldizkari Ofizialaren
12) Soziatiboa	Hezkuntza Sailarekin; Nafarroako Aldizkari Ofizialarekin
13) Instrumentala	Hezkuntza Sailaz; Nafarroako Aldizkari Ofizialaz

14) Motibatiboa	Hezkuntza Saila(ren)gatik; Nafarroako Aldizkari Ofiziala(ren)gatik
15) Destinatiboa:	Hezkuntza Sailarentzat; Nafarroako Aldizkari Ofizialarentzat
- Genitiboaren gainean eraikia	Hezkuntza Sailarendako; Nafarroako Aldizkari Ofizialarendako
- Inesiboaren gainean eraikia	Hezkuntza Saileko; Nafarroako Aldizkari Ofizialeko
- Adlatiboaren gainean eraikia	Hezkuntza Sailerako; Nafarroako Aldizkari Ofizialerako
- Prolatiboa	Hezkuntza Sailtzat; Nafarroako Aldizkari Ofizialtzat Hezkuntza Saildako; Nafarroako Aldizkari Ofizialdako

b) Artikulua kenduta, bokala izatea amaieran: mendi hitza bezala deklinatzen dira (hala deklinatzen dira, era berean, artikulua kenduta *e*, *i*, *o* edo *u* bokalaz amaitzen diren leku-izen artikuludunak ere, hala nola Iruñea, Bizkaia, Itzagaondoa, Basabürüa). Adibidez:

Euskal Konfederazioa (artikurik gabe: Euskal Konfederazio).

Euskaltzaindia (artikurik gabe: Euskaltzaindi).

Euskal Museoa (artikurik gabe: Euskal Museo).

Ezker Batua (artikurik gabe: Ezker Batu).

Artikulua kenduta *e*, *i*, *o* edo *u* bokalaz bukatzen diren adierazpen izendatzaileen deklinabidea

1) Absolutiboa	Euskal Konfederazioa; Euskaltzaindia
2) Partitiboa	Euskal Konfederaziorik; Euskaltzaindirik
3) Ergatiboa	Euskal Konfederazioak; Euskaltzaindiak
4) Datiboa	Euskal Konfederaziorari; Euskaltzaindiari
5) Inesiboa	Euskal Konfederazioan; Euskaltzaindian
6) Leku-genitiboa	Euskal Konfederazioko; Euskaltzaindiko
7) Adlatibo soila	Euskal Konfederaziora(t); Euskaltzaindira(t)
8) Hurbiltze-adlatiboa	Euskal Konfederaziorantz; Euskaltzaindirantz
9) Muga-adlatiboa	Euskal Konfederazioraino; Euskaltzaindiraino
10) Ablatiboa	Euskal Konfederaziotik; Euskaltzainditik
11) Genitiboa	Euskal Konfederazioaren; Euskaltzaindiaren
12) Soziatiboa	Euskal Konfederazioarekin; Euskaltzaindiarekin
13) Instrumentala	Euskal Konfederazioaz; Euskaltzaindiaz
14) Motibatiboa	Euskal Konfederazioa(ren)gatik; Euskaltzaindia(ren)gatik
15) Destinatiboa:	Euskal Konfederazioarentzat; Euskaltzaindiarentzat
- Genitiboaren gainean eraikia	Euskal Konfederazioarendako; Euskaltzaindiarendako
- Inesiboaren gainean eraikia	Euskal Konfederazioko; Euskaltzaindiko
- Adlatiboaren gainean eraikia	Euskal Konfederaziorako; Euskaltzaindirako
- Prolatiboa	Euskal Konfederaziotzat; Euskaltzainditzat Euskal Konfederaziotako; Euskaltzainditako

3.2.3 “a” bokalaz bukatuak (Eusko Ikaskuntza; Alderdi Sozialista; Bigarren Mundu Gerra; Eusko Jaurlaritza)

Azken *a* letra berezkoa denean, Donostia edo Nafarroa leku-izenak bezala deklinatzen dira. Halakoak dira, adibidez, Eusko Ikaskuntza edo Alderdi Sozialista.

Eusko Ikaskuntza (artikulturik gabe: Eusko Ikaskuntza).

Alderdi Sozialista (artikulturik gabe: Alderdi Sozialista).

a bokalaz bukatzen diren adierazpen izendatzaileen deklinabidea

1) Absolutiboa	Eusko Ikaskuntza; Alderdi Sozialista
2) Partitiboa	Eusko Ikaskuntzarik; Alderdi Sozialistarik
3) Ergatiboa	Eusko Ikaskuntzak; Alderdi Sozialistak
4) Datiboa	Eusko Ikaskuntzari; Alderdi Sozialistari
5) Inesiboa	Eusko Ikaskuntzan; Alderdi Sozialistan
6) Leku-genitiboa	Eusko Ikaskuntzako; Alderdi Sozialistako
7) Adlatibo soila	Eusko Ikaskuntzara(t); Alderdi Sozialistara(t)
8) Hurbiltze-adlatiboa	Eusko Ikaskuntzarantz; Alderdi Sozialistarantz
9) Muga-adlatiboa	Eusko Ikaskuntzaraino; Alderdi Sozialistaraino
10) Ablatiboa	Eusko Ikaskuntzatik; Alderdi Sozialistatik
11) Genitiboa	Eusko Ikaskuntzaren; Alderdi Sozialistaren
12) Sozatiiboa	Eusko Ikaskuntzarekin; Alderdi Sozialistarekin
13) Instrumentala	Eusko Ikaskuntzaz; Alderdi Sozialistaz
14) Motibatiboa	Eusko Ikaskuntza(ren)gatik; Alderdi Sozialista(ren)gatik
15) Destinatiboa:	Eusko Ikaskuntzarentzat; Alderdi Sozialistarentzat
- Genitiboaren gainean eraikia	Eusko Ikaskuntzarendako; Alderdi Sozialistarendako
- Inesiboaren gainean eraikia	Eusko Ikaskuntzako; Alderdi Sozialistako
- Adlatiboaren gainean eraikia	Eusko Ikaskuntzarako; Alderdi Sozialistarako
- Prolatiboa	Eusko Ikaskuntzatzat; Alderdi Sozialistatzat Eusko Ikaskuntzatako; Alderdi Sozialistatako

4 Adierazpen izendatzaileen berezitasuna: izena eta izana beti ez datoz bat

Adierazpen izendatzaileetan, gorago adierazi den bezala, askotarikoa izan daiteke osaera. Maiz, adierazpen izendatzaileak izen-sintagmak izaten dira. Kasu horretan, gerta daiteke –eta hala gertatzen da sarritan– izen-sintagmaren esanahi formula bat etortzea, zuzen-zuzenean zein gutxi gorabehera, adierazpenak izendatzen duen erreferentearen

esanahiarekin; hau da, adierazpena erreferentearen deskripzioa da, edo deskripziotzat har daiteke: izena eta izana bat datoz.

Adibidez, Euskaltzaindia euskaltzainak biltzen dituen **elkartea** edo euskaltzainen **multzoa** da (anaidi, lagundi, araudi eta kidekoen antzera); Hezkuntza Saila Eusko Jaurlaritzako **sail** bat da; *Orotariko Euskal Hiztegia* **hiztegi** bat da; Europar Batasuna Europako herrialde askoren **batasun** politiko bat da. Ibilaldia Bizkaiko ikastolen festa bat da, baina festa horren funtsa **ibilaldi** bat egitea da. *Haizearen Orrazia* izeneko eskultura, modu abstraktuan ulertuta, bada **orrazi** bat, nolabait. *Osasunbidea* Nafarroako osasun-zerbitzua da, eta, nolabait, osasunerako **bidea** dela uler daiteke.

Beste askotan, berriz, adierazpen izendatzaileak, izen-sintagma izanda ere, ez du formalki adierazten erreferentea; hau da, ez da erreferentearen deskripzioa: izena eta izana ez datoz bat.

Adibidez, *Argiaren* erreferentea ez da argia, **aldizkari** bat baizik; Euskadi Gaztea ez da lurralde gazte bat, **irradi** bat baizik; Amnistia Internazionala ez da amnistia-mota bat, **erakunde** bat baizik. Gure Txokoa ez da gure gustuko toki bat, **dantza-talde** bat baizik; Osasuna ez da eritasunik gabeko egoera, **futbol-talde** bat baizik. *Ehun metro* ez da luzera bat, **eleberri** bat baizik.

Adierazpen izendatzaileak deklinatzeko, kontuan hartu behar da, lehenik, izena eta izana bat datozen ala ez. Baldin izena eta izana bat ez badatoz, sintagma osoa hartu behar da deklinatzerakoan, mugatzailearik ez balego bezala, hau da, *-a* itsatsia duten izen bereziak balira bezala (Nafarroa edo Donostia bezala)⁸. Adibidez:

Hamabi denboraldiz jokatu zuen Bustingorrik **Osasunan** (***Osasunean**).

Berriako kazetariak (***Berriko** kazetariak).

Uda-gau bateko ametsako pertsonaia nagusiak (*Uda-gau bateko *ametsako* pertsonaia).

Euskadi **Gazteako** esataririk zaharrena (Euskadi ***Gazteko** esataria).

Saizarbitoriaren **Ehun metron** antiheroi gisa agertzen da protagonista (*Ehun *metroan*).

Halakoetan, aukerakoa da marratxoa erabiltzea:

Bustingorrik Osasuna-n jokatu zuen.

⁸ Halakoetan, adierazpena deklinatu beharra ez izateko, aposizioak erabil daitezke. Adibidez, **Osasuna** deklinatu beharrean, **Osasuna taldea** deklinatzea; **Berria** deklinatu beharrean, **Berria** egunkaria deklinatzea; edo *Uda-gau bateko ametsa* deklinatu beharrean, *Uda-gau bateko ametsa antzezlana* deklinatzea. Zilegi ez ezik, oso erabilgarria da aukera hori, batez ere testu batean lehen aldiz aipatzen denean. Baina erabilgarri izateari utzi eta alferrikako astungarri bihurtzen da testu berean behin eta berriro erabiltzen bada, ihesbide hutsal bilakaturik.

Euskadi Gaztea-ko esataririk zaharrena.

Eta letra etzana erabiltzen denean (hala nola artelanen izenetan edo argitalpenetan), letra etzanaren amaieraren eta letra arruntaren hasieraren bidez adieraz daiteke non amaitzen den izendapena eta non hasten den deklinabidea:

Berriako kazetariak.

Uda-gau bateko ametsako pertsonaia nagusiak.

Saizarbitoriaren *Ehun metron* antiheroi gisa agertzen da protagonista.

4.1 Ez da beti erraza ebazten izana eta izena bat datozen: interpretaziorako tartea

Adierazpen izendatzaileetan, batzuetan, ez da hain erraza zehazten adierazpena deskribatzailea den ala ez. Adibidez, Alderdi Sozialista, zalantzarik gabe, izendapen deskribatzailea da, alderdi baten izendapena baita eta izenean bertan **Alderdi** izena agertzen baita. Bestalde, Arrano Beltza, zalantzarik gabe, ez da izendapen deskribatzailea, elkarre baten izena baita eta ez baita, beraz, ez **arrano** eta ez **beltz**.

Zer dira, baina, Euskadiko Ezkerra, Herri Batasuna, Eusko Alkartasuna, Ezker Batua gisakoak? Benetan dira deskribatzaileak? Benetan dira, hurrenez hurren, **ezkerra**, **batasuna**, **alkartasuna** eta **ezkerra**? Hitz horiek ez dira alderdi, fronte, talde, elkarre, batzorde, erakunde... bezain deskribatzaile edo zehazki sailkatzaile. Subjektibitateko eta kontzeptualizazio desberdinetarako tarte bat dago hor, eta bi erabilerak ageri dira praktikan: Euskadiko Ezkerreko eta Euskadiko Ezkerrako, Herri Batasuneko eta Herri Batasunako, Eusko Alkartasuneko eta Eusko Alkartasunako, Ezker Batuko eta Ezker Batuako. Beti pentsa daiteke izendapenaren sortzaileen asmoan izaera deskribatzailea dagoela, eta, beraz, hori kontuan harturik, hobestekoa da artikulurik gabe deklinatzea (Euskadiko Ezkerreko, Herri Batasuneko, Eusko Alkartasuneko, Ezker Batuko...) baina, nolana ere, ez dirudi kategorikoki ebaztekoa denik.⁹

Eta alderantziz ere gerta daiteke. Hau da, batere deskribatzailea ez den adierazpen izendatzailearen bat deskribatzaile gisa deklinatzea. Adibidez, Amnistia Internazionala erakundea: Amnistia Internazionalako idazkari nagusia edo Amnistia Internazionalan

⁹ Adierazpen izendatzaile baten izaera deskribatzailea ez du hitz bakar batek erabakitzen. Adibidez, **Herri Batasuna** alderdi politikoaren adibidean, inork argudia lezake **herri-batasuna**, berez, izendapen generiko samarra dela eta ez dela, beraz, benetan deskribatzailea; eta, horregatik, **Herri Batasunako**, **Herri Batasunan**... deklinatzea dagokiola. **Angolaren Independentzia Osorako Batasun Nazionala** alderdi politikoaren adibidearen kasuan, berriz, nekezago argudia liteke izendapenaren generikotasuna, **batasun** hitza izenlagun batez eta izenondo batez lagunduta dagoenez gero. Horregatik, **Angolaren Independentzia Osorako Batasun Nazionalako**, **Angolaren Independentzia Osorako Batasun Nazionalan**... deklinatzen da, eta ez **Angolaren Independentzia Osorako Batasun Nazionalako** (?), **Angolaren Independentzia Osorako Batasun Nazionalan** (?).

lan egiten du idatzi ohi da, eta ez Amnistia Internazionalako idazkari nagusia edo Amnistia Internazionalan lan egiten du. Beste hainbeste gertatzen da Gurutze Gorria erakundearekin (Euskadi Gazteako esatariak baina Gurutze Gorriko boluntarioak); hala ere, erakundearen ikurra gurutze gorri bat denez, hortik uler daiteke “ikurra = erakundea” identifikazioa gertatzea eta, horren ondorioz, izendapen deskribatzailetzat jotzea.

5 Pluraleko adierazpen izendatzaileen deklinabidea

Batzuetan, adierazpen izendatzaileak izen-sintagma pluralak izaten dira. Adibidez: Alkoholiko Anonimoak (talde edo elkarte bat), *Obabakoak* (eleberri bat), Amnistiaren Aldeko Batzordeak (talde edo elkarte bat), Hertzainak (musika-talde bat), Batzar Nagusiak (erakunde bat), Eusko Trenbideak (enpresa bat), Ikasle Abertzaleak (talde edo elkarte bat), Mugarik Gabeko Medikuak (talde edo elkarte bat), Lagun Onak (futbol-talde bat), Senideak (talde edo elkarte bat), Kilometroak (Gipuzkoako ikastolen festa).

Deklinatzeko, kontuan hartzen da adierazpena deskribatzailea den ala ez. Deskribatzailea bada, edo deskribatzailetzat kontzeptualizatzen bada, izen arruntak bezala deklinatzen da. Adibidez:

- Alkoholiko Anonimoak (elkarte bat da, baina partaideak alkoholikoak dira; beraz, deskribatzailea da):

Alkoholiko Anonimoetan sartu zen edateari utzi ahal izateko.

Alkoholiko Anonimoetako kideen bilera.

- Amnistiaren Aldeko Batzordeak (talde edo elkarte bat zen, zenbait batzordez osatua; beraz, batzorde hitza duenez, deskribatzailea da):

Amnistiaren Aldeko Batzordeen kontrako auzia.

Amnistiaren Aldeko Batzordeei buruz hitz egin zuen.

- Batzar Nagusiak (erakunde bat; historikoki, benetako batzarrak ziren; beraz, batzar hitza duenez, deskribatzailea da):

Batzar Nagusietako lehendakaria.

Batzar Nagusien webgune ofiziala.

- Ikasle Abertzaleak (talde edo elkarte bat, ikaslez osatua; gerta daiteke talde horretako kide ez diren ikasle abertzaleak ere izatea; beraz, kontzeptualizazio desberdinetarako tarte bat dago hor¹⁰):

¹⁰ Idatzizkoan, dena dela, talde eta erakundeen izenak letra larriz hasita idazten direnez, letra larri horiek ikusita ondoriozta daiteke talde baten izena dela; hau da, hasierako letra larriek ezabatzen dute ambiguitasuna. Ahozkoan, berriz, ez.

Ikasle Abertzaleek eskola ibiltari bat antolatu dute. (deskribatzailea)

edo

Ikasle Abertzaleakek eskola ibiltari bat antolatu du. (ez-deskribatzailea)

Ikasle Abertzaleetako kidea. (deskribatzailea)

edo

Ikasle Abertzaleakeko kidea. (ez-deskribatzailea)

• Mugarik Gabeko Medikuak (talde edo elkarte bat da, medikuz osatua; beraz, deskribatzailea da):

Mugarik Gabeko Medikuen egoitza.

Mugarik Gabeko Medikuetako zenbait kide bahitu dituzte.

• Kilometroak (Gipuzkoako ikastolen festa, ikastolaren aldeko kilometroak egitean oinarritua; beraz, deskribatzailetzat hartzekoa da):

Orioko Kilometroetara joateko autobusa.

Sare sozialen eragina aurtengo Kilometroetan.

Deskribatzailea ez bada, edo deskribatzailetzat kontzeptualizatzen ez bada, artikulua izenaren partetzat hartzen da deklinatzeko. Orduan, izen berezi gisa deklinatzen da, ez pluralean. Halakoetan, lagungarria izan daiteke marratxoa (artelanean eta argitalpenen izenburuak letra etzanez idazten direnean, marratxoa ez da behar). Adibidez:

• *Obabakoak* (eleberri bat):

*Obabakoake*ko hainbat ipuinetan nabarmena da «arrazoia» eta «mitoa» bereizteko asmoa.

Ipuingintzaren tradizio luze eta zabalaren sintesia lortzen du *Obabakoakek*.

• Hertzainak (musika-talde bat):

Hertzainak(-)en *Aitormena* kanta ezaguna.

Zer esan Hertzainak(-)i buruz?

• Eusko Trenbideak (enpresa bat):

Eusko Trenbideak(-)ek 104,82 milioi euro jasoko ditu sare propioa ustiatzeko.

Eusko Trenbideak(-)en geltoki bat erre zen atzo.

- Lagun Onak (futbol-talde bat):

Lagun Onak(-)eko jokalariek.

Lagun Onak(-)en aurka jokatu dute.

- Muthiko Alaiak (Iruñeko lagunarte eta elkarte bat):

Muthiko Alaiak(-)en dugu hitzordua, ate aurrean, 12etan.

Muthiko Alaiakeko atean egongo da zain.

Dena dela, izendapena deskribatzailea den ala ez ebazteko kasu bereziki korapilatsuetan (korapilatsua egituragatik edo kontzeptualizatzeko zailtasunagatik), aposizioa erabiltzea izan daiteke irtenbiderik erosoena. Adibidez:

Plazandreok taldeko kidea naiz (Plazandreok-eko kidea naiz [?]; Plazandreotako kidea naiz [?]).

Plazandreok taldeak erabaki du (Plazandreok erabaki dute [??]; Plazandreok-ek erabaki du [?]).

6 Izen-sintagma ez diren adierazpen izendatzaileen deklinabidea

Adierazpen izendatzailea izen-sintagma ez denean, nekez izan daiteke erreferentearen deskripzioa: izena eta izana ez datoz bat.

Adibidez, *Gara* egunkari bat da; *Nafarroa Oinez* ikastolen festa bat da; *Ahal Dugu* alderdi politiko bat da, *Gure Esku Dago* herri-mugimendu bat da; *Egunero hasten delako* eleberri bat da; *Non dago Basques harbour?* poesia-obra bat da; *Bil* ta *Garbi* hondakinak kudeatzeko erakunde bat da.

Era horretako izendapenak izen berezi gisa deklinatzen dira, eta azken letra bokala edo kontsonantea den kontuan harturik deklinatzen dira. Adibidez:

Garako langileak; *Gararen* galderei erantzun die sailburuak.

2016ko *Nafarroa Oinez(-)*en aurkezpena; aurtengo *Nafarroa Oinez(-)*eko argazkiak.

*Ahal Dugu(-)*k eman du ezustekoa; herri horretan, *Ahal Dugu(-)*tik gertu gelditu da PSE.

*Gure Esku Dago(-)*n parte hartzeko deia egin du; *Gure Esku Dago(-)*ri emandako laguntza.

Argitalpen ugari izan du *Egunero hasten delakok*; *Egunero hasten delakon* lantzen diren gaiak.

*Non dago Basques harbour?*eko lehen poema; *Non dago Basques harbour?*en gai nagusia.

Bil ta Garbik energia sortu nahi du etxeko zaborrak erabiliz.

7 Arauaren laburpena

Izen bereziak leku-izenak edo pertsona-izenak izaten dira. Badira, hala ere, berezko izen berezi horien baliokide diren beste batzuk: adierazpen izendatzaileak dira, hala nola enpresa eta erakundeen izenak, marka, gertaera historiko eta artelanen izenak.

Hitz bakarrekoak izan daitezke (Euskaltzaindia, *Berria*, Euskaltel) edo hitz bat baino gehiagokoak (Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroa Oinez, Euskal Museoa, *Uda-gau bateko ametsa*), eta pluralekoak ere izan daitezke (Mugarik Gabeko Medikiak, *Obabakoak*, Kilometroak). Eta erdarazkoak ere izan daitezke (Greenpeace, *Star Trek*, Coca Cola).

Adierazpen izendatzaileen deklinabidea

Adierazpen izendatzaileak, oro har, gainerako izen bereziak bezala deklinatzen dira. Hala ere, badira desberdintasun gutxi batzuk. Horregatik, deklinabidean, leku-izenen eta pertsona-izenen sailekin batera, bada adierazpen izendatzaileen saila ere. Hona hemen:

Kontsonantez bukatutako adierazpen izendatzaileen deklinabidea

(Nafarroa Oinez; Star Trek; Interpol; Fagor...)

1) Absolutiboa	Nafarroa Oinez; Star Trek; Interpol; Fagor
2) Partitiboa	Nafarroa Oinezik; Star Trekik; Interpolik; Fagorrik
3) Ergatiboa	Nafarroa Oinezek; Star Trekek; Interpolek; Fagorrek
4) Datiboa	Nafarroa Oinezi; Star Treki; Interpoli; Fagorri
5) Inesiboa	Nafarroa Oinezen; Star Treken; Interpolen; Fagorren
6) Leku-genitiboa	Nafarroa Oinezeko; Star Trekeko; Interpoleko; Fagorreko
7) Adlatibo soila	Nafarroa Oinezera(t); Star Treke(t); Interpolera(t); Fagorrera(t)
8) Hurbiltze-adlatiboa	Nafarroa Oinezera(t); Star Treke(t); Interpolera(t); Fagorrera(t)
9) Muga-adlatiboa	Nafarroa Oinezera(t); Star Treke(t); Interpolera(t); Fagorrera(t)
10) Ablatiboa	Nafarroa Oinezetik; Star Treketik; Interpoletik; Fagorretik
11) Genitiboa	Nafarroa Oinezek; Star Trekek; Interpolek; Fagorrek
12) Soziatiboa	Nafarroa Oinezekin; Star Trekekin; Interpolekin; Fagorrekin

13) Instrumentala	Nafarroa Oinez; Star Trekez; Interpolez; Fagorrez
14) Motibatiboa	Nafarroa Oinez(en)gatik; Star Trek(en)gatik; Interpol(en)gatik; Fagor(ren)gatik
15) Destinatioa:	Nafarroa Oinezentzat; Star Trekentzat; Interpolentzat; Fagorrentzat
- Genitiboaren gainean eraikia	Nafarroa Oinezendako; Star Trekendako; Interpolendako; Fagorrendako
- Inesiboaren gainean eraikia	Nafarroa Oinezeko; Star Trekeko; Interpoleko; Fagorreko
- Adlatiboaren gainean eraikia	Nafarroa Oinezarako; Star Trekerako; Interpolerako; Fagorrerako
- Prolatiboa	Nafarroa Oineztzat; Star Trektzat; Interpoltzat; Fagortzat Nafarroa Oineztako; Star Trektako; Interpoltako; Fagortako

Kontsonantez bukatutako adierazpen izendatzaileak leku-izenak bezala deklinatzen dira, baina bada desberdintasun bat. Leku-izenak deklinatzean, aukerakoa da *e* bat sartzea (*e* epentetikoa) NON, NORA, NONDIK eta NORAINO kasuetan. Adibidez, **Eibarko** zein **Eibarreko**, **Gasteiztik** edo **Gasteizetik**.... Adierazpen izendatzaileetan, berriz, nahitaezkoa da *e* hori. Hau da, Nafarroa Oinez edo Fagor adibideen kasuan, **Nafarroa Oinezeko** eta **Fagorretik** dagokie, eta ez ***Nafarroa Oinezko** eta ***Fagortik**. Era berean, aukerakoa da leku-izenetan, NON eta NONDIK kasuetan, *-(e)ko* eta *-(e)tik* egin beharrean *-go* eta *-dik* egitea leku-izena *n* zein *l* letraz amaitzen denean: **Irungo** eta **Irundik** zein **Iruneke** eta **Irunetik**; **Usurbilgo** eta **Usurbildik** zein **Usurbileko** eta **Usurbiletik**. Adierazpen izendatzaileetan, ordea, ez dago aukera hori. Interpol edo Ederlan adibideen kasuan, **Interpoleko**, **Interpoletik** eta **Ederlaneko**, **Ederlanetik** dagokie, eta ez ***Interpolgo**, ***Interpoldik** eta ***Ederlango**, ***Ederlandik**.

***e, i, o* edo *u* bokalaz bukatutako adierazpen izendatzaileen deklinabidea**

(Urzante; Eroski; Cikautxo; Ahal Dugu...)

e, i, o edo *u* bokalaz bukatutako adierazpen izendatzaileak leku-izenak bezala deklinatzen dira. Hau da, Bilbo deklinatzen den bezala.

Artikuluak kenduta kontsonantez bukatzen diren adierazpen izendatzaileen deklinabidea

(Hezkuntza Saila; Nafarroako Aldizkari Ofiziala)

Artikuluak kenduta, azken letra kontsonantea duten adierazpen izendatzaileak (Hezkuntza Saila artikulurik gabe: Hezkuntza Sail; Nafarroako Aldizkari Ofiziala artikulurik gabe: Nafarroako Aldizkari Ofizial) artikuluak kenduta kontsonantez amaitzen diren leku-izen artikuludunak bezala (hala nola Abaurregaina, Urizaharra edo Pettarra) edo kontsonantez amaitzen diren izen arruntak bezala (hala nola haran hitza) deklinatzen dira.

Artikuluak kenduta *e, i, o* edo *u* bokalaz bukatzen diren adierazpen izendatzaileen deklinabidea

(Euskal Konfederazioa; Euskaltzaindia)

Artikuluak kenduta, azken letra bokala duten adierazpen izendatzaileak (Euskal Konfederazioa artikulurik gabe: Euskal Konfederazio; Euskaltzaindia artikulurik gabe: Euskaltzaindi) artikuluak kenduta *e, i, o* edo *u* bokalaz amaitzen diren leku-izen artikuludunak bezala (hala nola Iruñea, Bizkaia, Itzagaondo, Basabürüa) edo bokalez amaitzen diren izen arruntak bezala (hala nola mendi hitza) deklinatzen dira.

a bokalaz bukatzen diren adierazpen izendatzaileen deklinabidea

(Eusko Ikaskuntza; Alderdi Sozialista)

Adierazpen izendatzailearen azken letra *a* denean, hau da, azken letra *a* berezkoa denean, *a* berezkoa duten leku-izenak bezala (hala nola Nafarroa, Baiona, Donostia) deklinatzen dira.

Izena eta izana adierazpen izendatzaileetan

Adierazpen izendatzaileetan, gehienetan, esanahi formala bat etortzen da adierazpenak izendatzen duenaren esanahiarekin; hau da, adierazpena deskripzio bat da, edo deskriptio bat har daiteke: izena eta izana bat datoz.

Adibidez, Euskaltzaindia euskaltzainak biltzen dituen **elkartea** edo euskaltzainen **multzoa** da; Hezkuntza Saila Eusko Jaurlaritzako **sail** bat da; *Orotariko Euskal Hiztegia* **hiztegi** bat da; Europar Batasuna Europako herrialde askoren **batasun** politiko bat da.

Beste batzuetan, berriz, adierazpen izendatzailea ez da deskripzio bat: izena eta izana ez datoz bat.

Adibidez, *Argiaren* erreferentzia ez da argia, **aldizkari** bat baizik; Euskadi Gaztea ez da lurralde gazte bat, **irratia** bat baizik; Osasuna ez da eritasunik gabeko egoera, **futbol-talde** bat baizik. *Ehun metro* ez da luzera bat, **eleberri** bat baizik.

Adierazpen izendatzaileak deklinatzeko, baldin izena eta izana bat ez badatoz, adierazpen osoa hartu behar da deklinatzerakoan, mugatzaileak ez balego bezala, hau da, -a itsatsia duten izen bereziak balira bezala.

Hamabi denboraldiz jokatu zuen Bustingorrik **Osasunan** (eta ez **Osasunean**).

Berriako kazetariak (eta ez **Berriko** kazetariak).

Euskadi **Gazteako** esataririk zaharrena (eta ez Euskadi **Gazteko** esataria).

Saizarbitoriaren **Ehun metron** antiheroi gisa agertzen da protagonista.

Halakoetan, aukerakoa da marratxoa erabiltzea: Osasuna-n, Euskadi Gaztea-ko.

Ez da beti erraza ebazten izana eta izena bat datozen: interpretaziorako tartea

Gehienetan, garbi dago adierazpen bat deskribatzailea den ala ez. Adibidez, Alderdi Sozialista izendapen deskribatzailea da, alderdi baten izendapena baita eta izenean bertan **Alderdi** izena agertzen baita. Bestalde, Arrano Beltza, zalantzarik gabe, ez da izendapen deskribatzailea, elkarte baten izena baita eta ez baita, beraz, ez **arrano** eta ez **beltz**.

Zer dira, baina, Euskadiko Ezkerra, Herri Batasuna, Eusko Alkartasuna, Ezker Batua gisakoak? Benetan dira deskribatzaileak? Benetan dira, hurrenez hurren, **ezkerra, batasuna, alkartasuna** eta **ezkerra**? Hitz horiek ez dira alderdi, fronte, talde, elkarte, batzorde, erakunde... bezain deskribatzaile. Interpretazio desberdinetarako tarte bat dago hor, eta bi erabilerak ageri dira praktikan: Euskadiko Ezkerreko eta Euskadiko Ezkerrako, Herri Batasuneko eta Herri Batasunako, Eusko Alkartasuneko eta Eusko Alkartasunako, Ezker Batuko eta Ezker Batuako. Beti pentsa daiteke izendapenaren sortzaileen asmoan izaera deskribatzailea dagoela, eta, beraz, hori kontuan harturik, hobestekoa da artikulurik gabe deklinatzea (Euskadiko Ezkerreko, Herri Batasuneko, Eusko Alkartasuneko, Ezker Batuko...) baina, nolnahi ere, ez dirudi kategorikoki ebaztekoa denik.

Eta alderantziz ere gerta daiteke. Hau da, batere deskribatzailea ez den adierazpen izendatzaileen bat deskribatzaile gisa deklinatzea. Adibidez, Amnistia Internazionala erakundea honela deklinatzen da: Amnistia Internazionalako idazkari nagusia edo Amnistia Internazionalan lan egiten du idatzi ohi da, eta ez Amnistia Internazionalako idazkari nagusia edo Amnistia Internazionalan lan egiten du.

Pluraleko adierazpen izendatzaileen deklinabidea

Batzuetan, adierazpen izendatzaileak pluralekoak izaten dira: Alkoholiko Anonimoak (talde edo elkarte bat), *Obabakoak* (eleberri bat), Batzar Nagusiak (erakunde bat), Eusko Trenbideak (enpresa bat), Ikasle Abertzaleak (talde edo elkarte bat), Mugarik Gabeko Medikuak (talde edo elkarte bat), Lagun Onak (futbol-talde bat), Kilometroak (Gipuzkoako ikastolen festa).

Deklinatzeko, kontuan hartzen da adierazpena deskribatzailea den ala ez.

Adierazpena deskribatzailea bada, edo halakotzat hartzen bada, pluraleko izen arruntak bezala deklinatzen da.
--

- Alkoholiko Anonimoak (elkarte bat da, baina partaideak alkoholikoak dira; beraz, deskribatzailea da):

Alkoholiko Anonimoetan sartu zen, Alkoholiko Anonimoetako kideen bilera.

- Batzar Nagusiak (erakunde bat; historikoki, benetako batzarrak ziren; beraz, batzar hitza duenez, deskribatzailea da):

Batzar Nagusietako lehendakaria. Batzar Nagusien webgune ofiziala.

• Ikasle Abertzaleak (talde edo elkarte bat, ikaslez osatua; gerta daiteke talde horretako kide ez diren ikasle abertzaleak ere izatea; beraz, hiztunak edo idazleak izendatzailetzat edo ez-izendatzailetzat interpreta dezake adierazpen hori):

Ikasle Abertzaleetako kidea. (deskribatzailea) / Ikasle Abertzaleakeko kidea. (ez-deskribatzailea)

• Kilometroak (Gipuzkoako ikastolen festa, ikastolaren aldeko kilometroak egitean oinarritua; beraz, deskribatzailetzat hartzekoa da):

Orioko Kilometroetara joateko autobusa. Sare sozialen eragina aurtengo Kilometroetan.

Adierazpen deskribatzailea ez bada, edo deskribatzailetzat hartzen ez bada, artikulua izenaren partetzat hartzen da deklinatzeko. Orduan, izen berezi gisa deklinatzen da, ez pluralean.

- *Obabakoak* (eleberri bat): Ipuingintzaren tradizioaren sintesia lortzen du *Obabakoak*ek.
- Hertzainak (musika-talde bat): Hertzainak(-)en *Aitormena* kanta ezaguna.
- Eusko Trenbideak (enpresa bat): Eusko Trenbideak(-)ek sare propioa du.
- Lagun Onak (futbol-talde bat): Lagun Onak(-)eko jokalaririk.

Izen-formakoak ez diren adierazpen izendatzaileen deklinabidea

Adierazpen izendatzailea izena (izen-sintagma) ez denean, nekez izan daiteke deskribatzailea. Adibidez, *Gara* egunkari bat da; Nafarroa Oinez ikastolen festa bat da; Ahal Dugu alderdi politiko bat da, *Egunero hasten delako* eleberri bat da; Bil ta Garbi hondakinak kudeatzeko erakunde bat da.

Izen-formakoak ez diren izendapenak izen berezi gisa deklinatzen dira, eta azken letra bokala edo kontsonantea den kontuan harturik deklinatzen dira.

Garako langileak; *Gararen* galderei erantzun die sailburuak.

2016ko Nafarroa Oinez(-)en aurkezpena; aurtengo Nafarroa Oinez(-)eko argazkiak.

Ahal Dugu(-)k eman du ezustekoa; herri horretan, Ahal Dugu(-)tik gertu gelditu da PSE.

Argitalpen ugari izan du *Egunero hasten delakok*; *Egunero hasten delakon* lantzen den gaia.

Bil ta Garbik energia sortu nahi du etxeko zaborrak erabiliz.

Euskaltzaindiak 2016ko irailaren 30ean onartua, Iruñean